

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure helburua euskal musika entzuleen eta sortzaileen arteko komunitate sendo bat eraikitzea da. Horretarako, hainbat harreman mota bultzatuko ditugu.

Komunitateak eta baterako sorkuntza: Erabiltzaileek beren zerrendak partekatu ahal izango dituzte, euskal kulturaren inguruko elkarrikeria sustatuz. Spotify bezalako plataformek ez bezala, gurean entzuleek aktiboki parte hartuko dute komunitatearen garapenean. Taldearen eta aplikazioaren parte sentituko dira. Horrek bereizten gaitu beste aplikazio askoengatik.

Zerbitzu automatizatuak eta pertsonalizatuak: Web-aplikazioaren bidez, gomendio automatizatuak eskainiko ditugu, baina beti arreta pertsonalizatua bermatzeko aukerarekin, erabiltzaileen zalantzak argitzeko. Hau da, atal zehatz bat egongo da bezeroen zalantzak, arazoak edo kezak argitzeko eta ahalik eta gehien laguntzeko.

Negoio-ereduarekiko lotura: Bezeroak gure proiektuan integratzeko, harpidetza etikoak eta euskal musika taldeentzako laguntza zuzena sustatuko ditugu.

Salmenta ondorengo zerbitzuak: Bezeroa gurekin mantentzeko, euskal kontzertuetarako abantailak edo eduki eksklusiboak eskainiko ditugu, konpromiso etiko hori eguneroko abantaila bihurtuz.

Bezeroekiko harremana hurbiltasunean, parte-hartzean eta komunitate-sentimenduan oinarritzen da. Aplikazioaren barruan espazio interaktiboak sortuko dira, hala nola galderak, iritziak eta proposamenak jasotzeko atalak, erabiltzaileek beren ahotsa entzuna dela senti dezaten eta proiektuaren parte aktibo bihurtu daitezten. Era berean, eduki pertsonalizatuak eskainiko dira, erabiltzaileen interes, ohitura eta parte-hartze mailaren arabera, aplikazioa haien beharretara egokitzen dela erakutsiz.

Bezero berrien captazioa sare sozialen bidez, artista eta elkarteekin egindako lankidetzen bidez eta ekitaldi kulturaletan presentzia aktiboaren bitartez gauzatuko da, balio partekatuetan oinarritutako komunitateak sortuz. Fidelizazioa, berriz, erabiltzaileei protagonismoa emanez lortuko da: haien ekarpenak kontuan hartuz, eduki eksklusiboak eskainiz eta aplikazioaren bilakaeran eragina izateko aukera emanez. Horrela, harreman iraunkor eta konfiantzazkoa eraiki nahi da, non erabiltzaileak ez diren soilik kontsumitzaileak, baizik eta proiektuaren eragile aktiboak.